

Industria Ekoizpenaren Indizeak. Oinarria: 2021
2024ko otsaila. Behin-behineko datuak

**Nafarroako industria-ekoizpena % 5,7 igo da
otsailean, aurreko urteko hil beraren aldean**

**Energia kontuan hartu gabe, industria-ekoizpena
% 9,4 igo da**

2024ko apirilaren 5a

Igoerarik handiena *Nekazaritzako elikagaien industria* adarrak islatu du
(% 21,5ekoa).

INDUSTRIA-EKOIZPENAREN INDIZE OROKORRA

Aldiaren bilakaera. Nafarroako Industria Ekoizpenaren Indize Orokorra (NIEI) % 5,7 igo da otsailean, urtetik urterako kopuruei dagokienez, eta, Energiaren adarra kontuan izan gabe, indize orokorrak % 9,4ko igoera izan du. Egutegiaren ondorioak zuzenduta, tasa % 3,1era iritsi da.


Hiletik hiler, industria-jarduerak % 4,9ko igoera izan du, Nastatek Estatistikako Institutu Nazionalak (EIN) emandako informazioan oinarrituta landutako datuen arabera.

Espainiako datuak. Espainiako Industria Ekoizpenaren Indize Orokorrak % 4,1eko igoera izan du otsailean, 2023ko hil berarekin alderatuta.



1. GRAFIKOA

Industria-ekoizpenaren indizearen urtetik urterako aldakuntza (jatorrizko seriea)



Iturria: Geuk egina, INEren industria-ekoizpenaren indizea oinarri hartuta

INDIZEA, INDUSTRIA-ADARREN ARABERA

Industria-adarren arabera. Otsailean industria-ekoizpenak izan duen urtetik urterako igoera honako adar hauetan izan den igoeraren ondoriozkoa izan da funtsean: *Nekazaritzako elikagaien industria* (% 21,5), *Bestelako manufaktura-industriak* (% 10,2), *Garraio-materiala* (% 9,2) eta, neurri txikiagoan, *Industria metalikoak* (% 4,8) eta *Papera, zura eta altzariak* (% 4,4). Horiek guztiek *Energia* adarrean izandako -% 22,0ko jaitsiera konpentsatu dute.

1. TAULA

Nafarroako urtetik urterako aldakuntza-tasa, jarduera-adarren arabera (ehunekoaren arabera ordena)

ADARRAK	Urtetik urterako tasa (%)
Nekazaritzako elikagaien industria	21,5
Bestelako manufaktura-industriak	10,2
Garraio-materiala	9,2
Industria metalikoak	4,8
Papera, zura eta altzariak	4,4
Energia	-22,0
Indize Orokorra	5,7



CONTACTO I HARREMANETARAKO

estadistica@navarra.es

848 42 34 00



2. TAULA

Nafarroako Foru Komunitateko industria-ekoizpenaren indizea, jarduera-adarren arabera. Oinarria: 2021

ADARRAK	2023			2024		Hiletik hilerako tasa (%)	Urtetik urterako tasa (%)	Urteko tasa / metatua (%)
	Urr.	Aza.	Abe.	Urt.	Ots.			
1. Nekazaritzako elikagaien industria	108,6	106,9	91,9	97,9	105,1	7,3	21,5	13,9
2. Industria metalikoak, makineria eta ekipamendua	95,3	105,2	73,8	92,9	107,2	15,4	4,8	1,2
3. Papera, zura eta altzariak	93,9	89,7	71,3	99,7	97,1	-2,6	4,4	8,4
4. Garraio-materiala	145,2	148,9	89,1	135,9	150,1	10,5	9,2	26,5
5. Bestelako manufaktura-industriak	103,6	105,1	68,6	110,5	104,5	-5,5	10,2	12,1
6. Energia	71,9	60,3	68,6	84,9	69,4	-18,3	-22,0	-28,3
Indize orokorra, Energia gabe	109,6	113,5	79,4	106,4	114,6	7,8	9,4	11,8
Indize orokorra	104,7	106,6	78,0	103,6	108,6	4,9	5,7	6,0

Iturria: Nastat. Geuk egina, INEk emandako datuak oinarri hartuta.

INDIZEA, ERABILERA-TALDEEN ARABERA

Ondasunen xedearen arabera. Ekoiztako ondasunen xede ekonomikoari dagokionez, eta 2023ko otsailarekin alderatuta, ikus daiteke gora egin dutela *Kontsumo-ondasunek* (% 17,8ko iguera), *Inbertsio-ondasunek* (% 9,1ekoa) eta *Bitarteko ondasunek* (% 3,8koa).

3. TAULA

Nafarroako Foru Komunitateko Industria Ekoizpenaren Indizeak, ondasunen xede ekonomikoaren arabera. Oinarria: 2015

ERABILERA-TALDEAK						Hiletik hilerako tasa (%)	Urtetik urterako tasa (%)	Urteko tasa / metatua (%)
	Urr.	Aza.	Abe.	Urt.	Ots.			
Kontsumo-ondasunak	105,6	104,2	83,5	106,2	106,2	0,0	17,8	13,7
Inbertsio-ondasunak	127,5	135,3	89,6	117,8	135,6	15,1	9,1	17,3
Bitarteko ondasunak	95,6	99,6	66,5	95,5	100,6	5,3	3,8	4,0

Iturria: Nastat. Geuk egina, INEk emandako datuak oinarri hartuta.



CONTACTO I HARREMANETARAKO

estadistica@navarra.es

848 42 34 00



OHAR METODOLOGIKOA

Nafarroako Estatistika Erakundeak (Nastat) 2019az geroztik argitaratzen du Industria Ekoizpenaren Indizea, 2015ean oinarrituta, eta Koiunturazko estatistikei buruzko Kontseiluaren 1165/98 (EE) Erregelamenduak ezartzen duen moduan, non ezartzen diren bost urtean behingo oinarri-aldaketak, eta horrek haztapenak, produktu adierazgarrien saskia eta unitate informatzaileen panela eguneratzea dakar. Estatistikako Institutu Nazionalaren eta Nastaten arteko estatistika-lankidetzari eta informazio-trukeari buruzko esparru-akordioak xedatzen du, emaitzen zabalkundea areagotzeko, INEk Foru Komunitatean jarduten duten industrien hileko datuak bereizirik lagako dizkiola Nastati.

Nastatek informazio hori tratatzen du zabalkundea eskaini ahal izateko, eta horren xehetasunak webgunean argitaratutako metodologian kontsulta daitezke.

2024ko otsaileko datuetan, indizearen kalkuluaren osagai nagusiak eguneratzen dituen oinarri-aldaketa bat sartu da.

2021eko otsailaz geroztik, serieak oinarri berrian kalkulatu dira berriz, egitura berria erabilita. Beraz, 2021eko, 2022ko eta 2023ko aldakuntza-tasak oinarri berriaren arabera eguneratu dira.



INFORMAZIO GEHIAGO

Nastat

Industria Ekoizpenaren Indizeak. 2024ko otsaila.



CONTACTO I HARREMANETARAKO

estadistica@navarra.es

848 42 34 00

